

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure negozioa funtziona dezan, webgune bat sortuko dugu (www.secondxop.es), non bezeroak gure ideia eta eskaintzen dizkiegun deskontuak ezagutu ahal izango dituzte. Era berean, bezeroek eskaintzen dizkiegun jantzi guztiak eta jantzi bakoitzak balio duena ikusi ahal izango dute. Beraz, gure Webguneak funtziona dezan eta jendeak ikus dezan, informatikari baten laguntza beharko dugu gure webgunea sortzen laguntzeko.

Bestalde, webgunearekin eta jantzien prezioekin arazoren bat izanez gero, gure bezeroek zerbitzu azkarra eta segurua izango dute. Adibidez, arroparen prezioa eta webgunean jartzen duena bat ez badatoz, edo bezeroa gustura ez dagoen edozer gauza gertatzen bada, lehenbailehen konpontzen saiatuko gara, bezeroei konfiantza hori transmititu ahal izateko, eta, ez dezaten asko itxaron gure webgunea begiratu edo gure webgunetik erosi ahal izateko.

Azkenik, arropa gehiago edo beste zerbait behar badugu, akordioak egingo ditugu Zara, Stradivarius eta halako dendekin, saltzen ez duten arropa hori guztia lortzeko. Era berean, guk prezio merkeagoetan salduko ditugu jendeak erosten ez dituen jantzi horiek guztiak, gutxiago balio dutenez, berdin baita jantzia erosten badute.

